

Donostia, 2020ko ekainaren 19a

## UDALBATZAREN IDAZKARI NAGUSIARI

### KONTROL MOZIOA, HONDARTZEI BURUZKOA

Haizea Garay Gallastegui Elkarrekin Donostia udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoko 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkezten du, uda honetan hondartzetan izango diren zerbitzuen inguruan, GUNE PUBLIKOETAKO BATZORDEAN (OBRAK ETA HIRI ZERBITZUAK) aurkeztutako interpelazioaren ondorioz.

### JUSTIFIKAZIOA

Azken hilabete hauetan, COVID-19aren pandemiaren ondorioz, neurriak hartu dira distantzia fisikoa mantentzeko eta, horrela, pertsonen segurtasuna bermatzeko, birusaren kutsadura dela eta. Jakina denez, hondartzak ohiko leku bihurtu dira paseatzeko eta ariketa fisikoa egiteko, betiere gutxieneko segurtasun distantziak mantenduta. Horregatik, hondartzara joateak balio erantsia du orain, eta haietara sartzeko mugek garrantzi handia dute herritarrentzat.

Bestalde, udaldia iristean, horrelako tokien erabilera areagotu egiten da, batez ere aurten, bizi izan ditugun hilabete berezi horien ondoren. Orain arte, hainbat informazio eman dira hondartzetako espazioa nola kudeatuko den eta zer zerbitzu emango diren jakinarazteko. Ildo horretatik, neurri batzuk koordinatu ditugu beste udalerrri batzuekin, Hondartzen Lurralde Mahaian, hain zuzen.

Adibidez, hondartzetara sartzea arautu egin da, eta laster jarriko dira martxan hondartzen edukiera kalkulatzeko jarduera batzuk. Horretarako, teknologia bat erabiliko da, bide ematen duena kalkulatzeko zenbat lagun dauden hondartzan denbora errealean. Sistema hori osatzeko, banderatxoak jarriko dira, eta app bat ere egongo da, erabiltzaileek uneoro jakin dezaten hondartzara sartzeko lekurik dagoen.

Era berean, itsasgora baino bi ordu lehenago eta bi ordu geroago Kontxako hondartzara ez sartzea gomendatzen da; izan ere, itsasgoran leku gutxi dago eta horrek arazoak sortuko lituzke pertsonen artean, dudarik gabe, ezin delako distantzia fisikoa bermatu.

Batzordean hainbat gai planteatu genituen, besteak beste, Itsasertzetako Zuzendaritzari adierazi behar zitzaiola beharrezkoa dela badiaren edukiera kontrolatzea, zenbat ontzi sar daitezkeen ezarrita, ingurua zaintzen dela bermatzeko; ahaztu gabe, gainera, iaz arazoak izan zirela hondakinak bota zirelako badiara.

Bestalde, iritzi zabaldua da herritarren artean zerbitzu batzuk falta direla. Kontuan hartuta egoera salbuespenetzkoa dela, beharrezkotzat jotzen dugu herritarrei informazioa ematea eta, bestetik, berriz hausnartzea ea zerbitzu batzuk, bertan behera uztea erabaki direnak, abian jarri daitezkeen.

Hori dela eta, honako hau aurkezten dugu:

#### KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio udal gobernuari informazio-kanpaina bat egin dezala hondartzen denboraldi honetan emango diren zerbitzuei buruz eta kendu direnei buruz.
2. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio udal gobernuari hondartzetan eskainiko diren zerbitzuei buruzko informazioa sar dezala hondartzetako okupazioaren eta edukieraren berri emango duen aplikazioan.
3. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio udal gobernuari behar diren kudeaketak egin ditzala udako denboraldian hondartzetako dutxak eta aldagelak irekitzeko.

4. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio udal gobernuari Itsasertzetako Zuzendaritzari badiaren edukiera kontrolatzeko, ontzi-kopuruari dagokionez, inguru naturala errespetatuko dela bermatzeko.

Haizea Garay Gallastegi,  
*Elkarrekin Donostia udal taldeko zinegotzia*